

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5411

AGINDUA, 2013ko azaroaren 19koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2013ko azaroaren 18an egindako bilkuran, proposamen hau egin du.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau jakinarazten den egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

2013ko abenduaren 13a, ostirala

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 19a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

GOI MAILAKO KIROLARI DEKLARATUTAKOAK

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea
Urien Ochandio, Igor	270/13/D	Automobilismoa
Moreno Fernandez, Arantza	271/13/D	Atletismoa
Pérez Riaño, David	273/13/D	Piraguismoa
Lazkano Zuriarrain, Miren	274/13/D	Piraguismoa
Navaskues Lasheraz, Unai	275/13/D	Piraguismoa
Garmendia Maíz, Imanol	276/13/D	Arraunketa
Errandonea Fernandez de Barrena, Teresa	278/13/D	Atletismoa
Guajardo Lofardo, Maria Eugenia	279/13/D	Hockeya
Ybarra Solano, Lucia	280/13/D	Hockeya
Ybarra Solano, Rocío	281/13/D	Hockeya
Flores, Anabel	282/13/D	Hockeya
Garmendia Olasagasti, Aitor	283/13/D	Piraguismoa
Lopez de Eguilaz Zubiri, Maria	284/13/D	Hockeya
Ruiz de Arechavaleta Perez, Xabier	286/13/D	Piraguismoa
Maraña Casado, Patricia	287/13/D	Hockeya
Peula Cabello, Francisco José	288/13/D	Patinajea
Gomez Lapoujade, Marta Mari	290/13/D	Hockeya

GOI MAILAKO TEKNIKARI DEKLARATUTAKOAK

Izen-abizenak	Espediente zk.	Modalitatea
Alkorta Agirregabiria, Olatz	43/13/T	Piraguismoa
Alvarez Arruti, Imanol	44/13/T	Eskubaloia